

# **EGIA ETA EGIANTZEKOTASUNA: PRENTSA EUSKADIN (zenbait adibide)**

**Antton Azkargorta - Nikolas Xamardo**

Manipulazio-prozeduren barne-izaeran sakondu nahiak oinarrizko kontzeptuak berrezartzera behartzen du, hau da, "egia", "egiazkoa", "egiantzekotasuna", "jakintza", "gezurra"... bezalako kontzeptuen irakurketa berria da beharrezkoa.

Izan ere, Egia eta Jakintza kontzeptuak giltzarri dira arazo honetan. Hasiera batez, parekagarri irudi balezakete ere, eremu desberdinekoak dira. Jakintza baieztagarria da, frogagarria da, zehatza da, Historiarekin pareka daiteke, Entziklopedia du ikurtzat, beraren prozedura bereizketaz eta sailkapenaz osatzen da. Egia, ordea, generikoa da, bereiztezina, berarengana hurbiltzeko prozedura "fideltasun generikoa" da eta helbideak "sintomak". Halaber, egia proiektua da.

Sare teoriko honen eta komunikabideen eginkizunaren arteko lotura zuzena Politikatik dator. Jakintzatik aldentuz, datu zehatzak baztertuz, Estatuko komunikabideak egiantzekotasunera hurbiltzen baldin badira Politikaren subjektuarenganako konfiantza deuseztatzen zuzentzen direlako da.

---

## Aurkezpena

---

1989ko UEUn azaldu genituen komunikabideetan manipulatzeko erabiltzen ohi diren prozedura usatuenak. Azalpen haien arrazoia, batez ere, ZEN planak "Euskal kasua" delakorako proposatzen zuen politika informatiboaren filosofiari erantzutea genuen. Prozedura horiek, oraindik agortu ez badira ere (hamaika aldagai onartzen bait dute), soberan azaldurik daude dagoeneko.

Aurten, aitzitik, prozedura zehatz horiek sostengatzen duten barne-izacran sakonduz ahaleginduko gara. Hau da, manipulazioaren beraren muina eta arrazoia. Helburua, beraz, "bailitzan" aditzaren bidez esan litekeen formula zehaztea litzateke: "basta que la información sea creíble para explotarla" ("Nahikoa da informazioa sinesgarria izatea profitatu ahal izateko"), hauxe da, kontraintformazioaren eremuan, ZEN planaren oinarritzko axioma.

Konpara dezagun aurreko esaldia Konstituzio-Epaitegiaren ondoko ebazpenarekin (6/1988ko urtarrilaren 21a): "Konstituzioak informazioa egiazkoa izan dadila eskatzen duenean, informatzailearen zeregin ezinbesteko eta bereiztua ezartzen ari da, eta honi beroni eska eta exiji dakioke *gertaeratzat* jotzen eta transmititzen duena, aldezturik datu objektiboekin baieztaturik izatea; honela bada, berma konstituzionala ukatu egingo zaio, guztiok dugun informazioarekiko eskubideari

iseka eginez, informazioaren faltsutasuna edo egitasun eza erabiliko duenari. Arautegiak ez du honelako jarrera ardurabakorik babestuko, are gutxiago zurrumurru soilak edota, txarragoa dena, asmakizun edo susmo fedetzarrekoak gertaeratzat jotzen dituen informazioak..."(Cuando la Constitución requiere que la información sea veraz... [está] estableciendo un específico deber de diligencia sobre el informador, a quien se le puede y debe exigir que lo que transmita como *hechos* haya sido objeto de previo contraste con datos objetivos, privándose así, de la garantía constitucional a quien, defraudando el derecho de todos a la información, actúe con menosprecio de la veracidad o falsedad de lo comunicado. El ordenamiento no presta su tutela a tal conducta negligente, ni menos a la de quien comunique como hechos simples rumores o, peor aún, nuevas invenciones o insinuaciones insidiosas...) eta konparaketak ageri-agerian jarriko digu norainokoa den ZEN planaren formulazioaren salbuespentasuna.

Estatua behartuta dago salbuespeneko metodoak erabiltzen, hau bezalako metodoak, nahiz eta, guztiok dakigunez, itxuraz behinik behin, baliabide eta bitarteko guzti-guztiak dituen, (legala, poliziala, ekonomikoa, informatiboa, politikoa, hezkuntzarena eta abar). Kazetal kode deontologikoan honelako salbuespeneko legea sartzeak argi

eta garbi adierazten digu "zerbait" berezi dagoela, eta honen kausaz, beren arauak baztertu eta sistema legal berezkoa hausten duten neurri berezietara jo behar dutela.

Horregatik, hain zuzen ere, ezinbestekoa deritzogu arazo honekiko kontzeptuak berrezartzeari. Lehenengo eta behin, kontzeptu hauek egunero erabiltzen direlako, eta bigarrenik beraien esangura egitura erreferentzial menperatzailetik sortu eta berberari zuzendurik dagoelako.

---

### Egia eta jakintza

---

Gainontzeko kontzeptuek zutabetzat duten bi erreferentziak EGIA eta JAKINTZA dira. Bi kontzeptu hauek sinonimotzat jotzeko ohiturak oztopatu egin du gaia bere horretan ulertzea. Nahasketa, jakina, ez da errugabea. Gehienetan, jakintza egia bailitzan eskaintzen zaigu eta egia, jakintzaren eremukoa bailitzan. Leibniz-ek<sup>1</sup> berak egi mota desberdin bi bereiztu beharra izan zuen, nahiz eta defendatu egia (egia baldin bada behintzat) jakintzaren objektua dela, eta beraz, edozein egia proposizio berdinez formula daitekeela,  $A = A$ . Egi mota bat, Leibniz-entzat, *egia beharrezkoa da*, eta beraren ezaugarria operazio logikoen kopuru mugatu baten bidez frogatu daitekeela da; bigarren egiak, aldiz, *egia ustekabekoak edo kontingenteak* etapa-kopuru mugagabea eskatuko luke. Horren arabera, soilik Jainkoak frogatu zitezkeen bigarren mota honetako

egiak. Edo bestera esanda, Jainkoaren existentziak berak (fededunentzat antonomasiatzko Egia dena) soil-soilik baieztatu dezake prozedura trazezendentea, generikoa, bereiztezina, hau da, prozedura mugagabearen bidez.

*Egia eta jakintzaren artean dagoen nahasketa, berriz azaltzen zaigu beraietatik eratorritako, edo beraiekin erlazionaturiko terminoetan: EGIAZKOA (verfdico), EGIAN-TZEKOA, BENETAKOA (verdadero), FALTSUA, OKERREKOA, GEZURRA...*

Aristotelek *Poetika*<sup>2</sup> izeneko obran hauxe dio: *Poetaren zeregin berezkoa ez da errealki jazo diren gauzak kontatzea, baizik eta jazo litekeena kontatzea. Gertakizunak izan daitezke, izan, egiantzekotasuna zein beharri-zanaren kariaz. Hots, historialaria eta poeta ez dira bereizten batak bertsoetan eta besteak prosan egiten dituztelako kontaketak (Herodotoren lana bertsoetan idatzu zitezkeen eta historia izaten segituko zuteen bertsoetan zein prosan); aitzitik, beraien arteko bereiztasuna zera da, batak jazotako gertakizunak kontatzen dituela, eta besteak, jazo litezkeenak.*

Gertakizun historikoak beharrezkoak dira, uka ezinezkoak, baieztatu daitezke eta objektibatu, Jakintza osatzen dute, Historia Zientzia den neurrian. Arteak, ordea, beharrezkoaren eremutik planteatua izan arren, ezusteko arloa dauka,

*gehi*-a dauka, Jakintzaren gainera, berritasun generikoa, ezustekoa edo kontingentearen eremuko izatea eragiten diona, Leibniz-en kontzeptuen arabera azalduz gero. Honela bada, artearen berezkoa Egia da eta ez Jakintza, nahiz eta artea egiantzekotasunaren (barnekoa, intrintsekoa, ez kanpoko) hitzaren bidez gauzatu, eta beti Jakintzaren bidez (erreferentzia entziklopedikoa) zehaztu, eta ez Egiaren (infinitu) bidez.

Nahiz eta kontzeptua egia-antza hitzetatik eratorria izan, horretan datza beraren efikazia eta indar ezkutatzailea.

Egiantzekotasuna Egiantz edo Jakintzarantz gehiago edo gutxiago makurtzen delako frogak kasuistika zabalean aurkitzen dugu, entziklopediatik hasita (Jakintza klasifikatu eta inbentariatuaren sinbolo enblematikoa), egiantzeko fideltasun orokorra planteiatzen duen edozein prozedurataraino (arte, politika, maitasuna eta zientzia). Jakintzaren oinarritzko erakuslea datua da, gertaera, kasua, hitz batez, notizia. Jakintzaren araua beti da izendapen zehatzerako erizpidea izatea. Azken finean Jakintzaren eremuko funtsezko zereginak *bereizketa* (aurkeztu edo pentsaturiko multzo anitzak dituen eta ez dituen ezaugarriak) eta *sailkapena* (bildu ditzakegu eta ezaugarri amankomunatuaz izendatu, gure usterako berezkitasun berbera eta izendagarria duten multzo anitzak). Bereizketa, aurkezturiko edo

aurkezturiko diren errealitateen eta hizkuntzaren arteko loturari dagokio. Aurkezpena du helburu. Mailaketa edo *sailkapena*, aldiz, egoeraren parte (multzoen azpimultzoak) eta hizkuntzaren arteko loturari dagokio. Ordezkapenak errepresentazioa du helburu.

Datu baieztagarrien kopuru handia edo txikiagoak, zehaztasun gehiago edo gutxiagoak, objektibitateak funtsean, ez dute zerikusirik Egiantzekin, baizik eta Egiantz edo Okerrekoaren arteko eremu zabalean murgiltzen den. Datuak agortezinak izateak, alde batetik, eta nabardurak itxuraz mugagabeak izateak (elementu ezagunen arteko konbinatoria mugagabea da) bestetik, ez du esan nahi Jakintza eta Objektibotasuna existitzen ez direnik. Bestelako kontua da (ondorengo adibidean Todorov-ek daginez) sofistiko eta agortezin-anekdotikoa (Zenon-en aporiak: Akiles eta Dortoka...) Egiantzaren mugagabetasunaren ordez eman nahi izatea; Egia oro, halabeharrez, mugagabea, infinitua delako, eta Jakintza oro mugatua.

*Egun batetan, J. a. V. mendean, Sizilian, bi gizonak eztabaidan zihardutela istripua gertatu zen. Biharamunean, erruduna nor den erabaki behar zuten agintarien aurrean aurkeztu ziren. Baina, nola aukeratu? Kereila ez da epaileen begien aurrean gertatu, eta ezin izan dute egia behatu ezta egiaztatu ere; sentimenak ahalgeak dira; irtenbide bakarra*

*baino ez dago: kerellarien kontaktak entzun. Modu honetan, azken hauen jarrera aldatu agertzen zaigu: kontua ez da egia ezartzea, (ezinezkoa, bestalde) hurbiltzea baizik, egiaren itxura eman, eta inpresio hori are eta handiagoa izango da zenbat eta trebeagoa izan kontaketa)<sup>3</sup>.*

Todorov-ek aztertzen duen istorio honetan bi maila agertzen zaizkigu: *gertaera* eta "*casus judice*". Hasiara batetan, istorioa bi modutara gutxienez planteiatu beharko litzateke. *Gertaera*ren beraren kontaketa, errelatu periodistikoa klasikoa litzateke; albistea, dituen elementu guztiekin. Egoera normalean (*gertaera* arruntak direnean, hau da, trazedentziarik gabekoak) kazetariak, iturriak kontrastatzeaz gain, ahalik eta fidelen emango lituzke datuak, "alde batetik... bestetik" motako formula erabiliz, bertsio biak isladatu nahian.

Kereilariak, edo berauen abokatuek, kazetarien errelatua baino askoz desberdina den beste errelatua eraikitzen dute. Abokatuen diskurtsua gertatutakoaren interbentzioak markatzen du —eta ez izandakoaren errelatu soilak— beraren helburua kontzientziak mugieraztea bait da, konbentzitzea, bertsioetarik bat aukeratzea, ez du balio dagoeneko "alde batetik... bestetik" formulak. Horrexegatik, hain zuzen ere, "bailitzan" formularen garrantzia, egiantzekotasunaren eraikuntzan, edo, Baudrillard-ek

esango lukeen bezala, "simulakroa"ren eraikuntzan. Guzti honen gainean Platonek honokoa idatzi zuen: *Halaxe da, epaitegietan ez digu axola egia esateak, konbentzitzeak baizik, eta konbentzimendua egiantzekotasunetik dator*<sup>4</sup>.

Aurreko honek agerian jartzen diguna zera da, "bailitzan" arazoak arduratzen garenean, eta ez egian izandakoaz, edo areago, "bailitzan"-a izandakoaren ordeza pasaerazi nahi zaigunean, manipulazio informatiboaren benetako izaera azaltzen zaigula. Gure ustez, hauxe da ordezkapen honek kazetari informatzaileari dakarkion gainekaduraren arazoa, egoeraren datuen artean, egoeraren deskribapen soila baino harantzago doan zerbait dagoela, eta harrapatu eta neutralizatzeko ahaleginean, egiantzekotasunaren "bailitzan"-az baliatzea behartuta dagoela, bai abokatuak (ohi denez) eta bai kazetariak batoren zein bestearen aldeko jarrera hartzen dutelarik. Kazetariak, gertakizunaren arloko zerbait daukan informazio baten aurrean, eta abokatuak edozein istilutan konpondu beharraren aurrean, *parte hartzera* ("bustitzera") behartuta daude, datuak ez-nahikoak direlako, kasu batean zein bestean, eta beraz, kasu batean zein bestean bide bi baino ez dira gelditzen: istiluan ordezkaturik dauden bi parteetarik bat aukeratu, edo bertsio ofiziala bakartzat onartua izan dadin saiatu.

---

## Egiantzekotasuna eta eritzi publikoa

---

Egiantzekotasunak, Egiaren antza eduki nahi horretan, datuetatik harantzago jotzen du, baina traszenditu arren ezin ditu datuak baztertu; beraz, baieztagarriak diren datuak dauzka alde batetik, eta bestaldetik, nahikoa du gaiaz gehiengoak duen eritziarekin. Corax-ek egiantzekotasunaren lehenengo teorikoetarikoak, bigarren aspektua azpimarratzen zuen lehenengoaren kaltetan: «egiantzekotasuna –beraren ustez– ez dago errealarekin loturik, baizik eta gehiengoak errealtzat jotzen duenarekin, bestera esanda, eritzi publikoarekin». Uste berekoak ditugu Aristotele eta Platon: egiantzekotasuna, testu partikularrak "eritzi publikoa" izena daraman beste testuarekin, orokorragoa eta zabalagoarekin, duen erlazioa da.

Orain galdera zera da, zeri esaten diogun eritzi publikoa. Kontzeptuak berez kontraesanguratsua dela ematen du, eritzia gauza pertsonal eta indibiduala izanik, ez bait du bidezkoa ematen publikoa izan daitekeenik<sup>5</sup>.

Arazoa ez da Bata eta Pluralaren artean sortzen den dialektika, baizik eta nor den pluralitatea (funtsezko arazoei loturik) zehazteko eta homogeneatzeko arduraduna; laburbilduz, eritzi publikoa mugatzaile berbera duten epaien multzoa dugu, Estatutik maneiatzan (operatzen) den "mugatzaile berbera",

pluralari arrazoaia eta batasuna ematen diolarik. Estatuaren *arrazoia* da eritzi publikoa *arrazoigarri* bihurtzen duen elementua.

Bestalde, egiantzekotasunaren eremu pribilegiatua artearena da. Eta, azken finean, testugintzaz dihardugunez, literaturatik hartutako adibideak tratatuko ditugu; poetika batez ere, genero artistikoena eta benetazkoena bait da. Literaturgintzan polizi nobela da, ordea, genero ez-literarioena (esaterik balego), ez-poetikoena, egituratuena delako eta gertaera kronika edo polizi inkestarekin antz handiena daukana delako. Kasu honetan, egiantzekoa oso dimentsio berezian agertzen da, literaturtasunaren (fikzio poetikoa) eta izandakoaren edo susmaturikoaren errelatuaren artean kokatzen da. Horrexegatik, genero honen egiantzekotasuna "anti-egiantzekoa ezartzea" da. (Todorov)<sup>5</sup>. Hau da, Todorov-ek anti-egiantzekoa planteiatzen du polizi nobelan posiblearen eremu mugatuaren barruan, baina, eritzi orokorraren ikuspuntutik ikusita, "a priori" ez-probablearen eremuaren barruan dagoena.

Nolanahi ere, bai Todorov-ek, bai Genette-k<sup>6</sup> eta bai Bathes-ek<sup>7</sup> onartu egiten dute polizi errelatuaren egiantzekotasuna (kombinatoria hutsaz, arrastoen leku-aldaketaz lortua, gure ustez), edo literaturaren lan "txikien" egiantzekotasuna ez den beste egiantzekotasun-mota bat egon badagoela. Gérard Genette-k honelaxe definitzen du: *Katearen*

*beste muturrean, hau da, egiantzekotasuna inplizitu dagoen estatu honen aurkako muturrean, eritzi publikoarekiko adostasunetik askeen dauden idazlanak leudeke. Leku honetan, errelatuari ez dio ardura egia orokorren sistema errespetatzeak, beraren jatorria egia partikularra edo sakoneko askamakizuna bait da. Errotiko berritasuna edo orijinalitateak, edozein alderditatiko independentziak, egiantzekoarekiko morrontzatik antipodetan kokatzen du ideologikoki. Hemen dugu Egiatik Jakintzarako ("egia orokorren sistema") pausua, Egiatik egiantzekora.*

Esan dezagun, ondorioz, egiantzekoa Egiari esker dela, izan, nahiz eta Egia harrapatzeko Jakintzaren mugimendua baino ez izan, harrapatzeko ahalegin etengabea. Egia dugu, dudarik gabe, geroko edozein Jakintzaren oinarri. Horrexegatik, Egiak oro zuloa eragiten du Jakintzan. Bestalde, Egiaren beste ezaugarria zera da, mugatzaile entziklopediko guztietatik kanpo kokatzen dela, Jakintza egituratutik kanpo; Egiari funtsezkoa zaio generikoa, Jakintzaren arloak bereiztu ezin duena, Jakintzatik kanpo kokatzen dena, bereiztezina; guzti hau bait da egoera baten egia orokorra. Ondorioz, Egiak ez du kontrakorik. Jakintza Egiaren alde estrukturala da; Okerrak eta Gezurrak berriz, Egiaren oztopo baino ez dira, haren efektuak berandutu egiten dituzte, ez besterik.

Nolanahi ere, bereizketarako beste modu bat ere badago: Jakintzatik kanpo egonda, baina izendapen militante eta interbinientearen efektupean, gertakizunaren izenarekiko loturak aztertzen dituen modua; hori da fideltasun generikoaren prozeduraz ezagutzen duguna.

---

### **Komunikabideak eta konfidantza**

---

Ikusia dugu, dagoeneko, artea prozedura hauetariko bat dela, beste bat eta politikak batak edertasuna eta besteak entusiasmoa sortzen dutenez, bi hauek komunikagarriak ez direla zehaztu behar dugu eta transmisio pedagogikorako gauza ez direla. Ez dago, beraz, artearen edota politikaren jakintza, baizik eta sorturiko efektuen azalpen partzial eta diferitua.

Politika fideltasun generikoaren prozedura da, konfidantzarena, eta beraren gertakizunak eten historikoak dira; eten historiko hauetan sozialaren hutsunea faltan agertzen da —Estatu espainolak ez du legitimitaterik Euskal Herrian—, beraren operatzaileak aldagarriak dira (Euskal Herrian diren erakunde anitzak), eta beraien produkzio mugagabeak bereiztezinak dira Jakintzaren arlotik ikusirik. Zehazkiago: ez datoz bat Estatu mailan izendagarria den inolako erakunde edo forma politikorekin (Alderdia, Sindikatua...)

Aipatu *etenak egoerango subjektibitatearen aldaketak* dira, eta bereizketa egiteko era propioa ez datorkie Jakintzatik (Soziologia, Ekonomia), baizik eta ekintza militantetik egindako azterketa sintomatikotik (sintomak, ez arrastoak).

Horrexegatik, ZEN planak markatzen duen aipatu erizpideari jarraituz, komunikabide guztien baliabideak politikaren, gertakizunaren subjektuaren (ganako) konfidantza deuseztera zuzendurik daude, konfidantza politikaren subjektuen lokarria bait da. Hauxe da egiantzekotasun informatiboa eraikitzeko parterik handiena subjektibitatearekiko erreferentzian gauzatzeko arrazoiak: Kinitoren kasuan traidore eta salatariaren imajina azpimarratu nahi luke ENAMeko militantearengan; Ilumberriko kasuan partaideen etsipen suizida eraiki nahi luke; balizko erreintsertatuen kasuan, amore ematen duen koldarraren imajina azpimarratu nahi luke; porrot egindako Sevillako ihesean subjektuaren gaitasun eza azpimarratu nahi luke; ETA eta narkotrafikanteen arteko balizko harremanetan, ENAMeko militanteen "moral bikoitza", eta abar. Laburbilduz, gainezkadura subjektiboa, justizia eta kuraia, eta hauen egia indargabetu nahi dira, suntsitu eta barrura sartu nahi dituen egiantzekotasuna eraikiz.

Guzti hau honela bada, kontaketa egiantzekodunek oinarrian datu baieztagarriak baldin badituzte eta

eritzi publikoa oinarrian baldin badituzte, nola jakin dezakegu tranpa hor dagoenik? Zer nolako sintomak agerteratzen dizkigute egoerari buelta emateko baliagarriak diren hutsuneak, akats ikusgarri eta erabilgarriak?

---

### Ondorio gisa

---

Konklusio gisa, manipulazio informatiborako prozesuei buruzko zenbait hausnarketa egin dezagun:

-Abiapuntutzat hartu beharra dago, edonola ere, "bailitzan" a konponbidea baino ez dela, eta gainera, politikaren egiak gainezkadura neutralizatu eta bereganatu nahi duela, eta ez alderantziz, egiten ohi denez.

-Jakintzaren subjektuaren interbentzioak (legea, informazioa), Egiaren efektuak beraren barnean sortzen dituen zuloak estaltzen eta berregiten ahalegintzen dira. Horrexegatik, arreta handiagoa zor zaio "bailitzan" horien barnean dauden intentzioak ezagutzeari, informazio polizialak oro duen Jakintzari buruzko parafasiak egiteari baino, informazioa oso gogorra balitz ere. Funtsean, Egia beste leku batetan dagoelako konfidantza dugu, egoeraren statuserako efektu zirrargarriak sortuz.

-Gure ahalegina, politikaren Egiak Jakintzaren egituran sortzen dituen efektuak (zuloak) interpretatzea da, azterketa sintomatikoaren (koalitatiboaren) bidez. Intuizioak hartuko ditugu oinarri eta ez ebidentziak edo arrastoak.



Batzutan sintomak informazio bezala aurkituko ditugu (Amedok Kinitori zuzendutako gutun ezaguna); komunikabide eta iturri ofizialen aldetik isiltasuna, (nahiz eta isiltzeko zaletasun gutxi duten: "enuntziatzeko beharra"), zain egotea, eta abar, izango dira inizatiba nork eramaten duen esango digutenak bai eta politika informatiboaren munduan ere (ikus "Kinitoren kasua"). Beste zenbaitetan, sintomak informazioaren momentuan aurkitzen dira (koiuntura deiturikoan, ekintza ugari egonik emaitza poliziako gutxi dagoenean); informazioa **datu oparoetan** apoiatzen da eta begibistakoa are eta begibistakoa egiten ahalegintzen da; informazio gehigarriak erabiltzen dira –esaterako– pertsona baten gainean kontzentratzeko datuak: Artapaloren atxiloketa eskatuz, Sevillako ihesa.... Bestaldetik, "lapsus"ak ere agertzen dira: Felipe "politikaren desagueak" aipatuz, GALen inguruko "lapsus"ak, **zentzugabekeriak** ("minorfas abultadas"), bertsio ofizialak datu mordoez puzteko gehiegikeriak ("todo aquel que dude del suicidio se descalifica") eta abar; hauck ere intuiziorako beste zenbait sintoma dugu.

Aipatu politika informatibo guzti hau, batez ere, egituraren subjektuak mantentzeko eta indartzeko planteiatu dago; Euskal Herriarekiko debalutua eta injustua den legearen mantenimenduaren subjektuak dira. Subjektu hauen oneritziak, ZEN planaren egileek zera dioskute: legeak babesturik, edozer egin behar

eta ahal dugu. Super-egoa da. Bere mezua, hala ere, entzulego bati zuzentzen diote, bi kualitaterean artean eszinditurik dagoen entzulegoari: gertakizunak dakarren egiarengan (proposamenaren justutasunean konfidatu eta beraren defentsaren balorean) konfidantza, alde batetik, eta aldi berean, sistemaren ebidentzia zenbagaitzen (Jakintza) sinesgarritasuna bestetik, azken honek amore ematera bultzatzen duena.

Gure zeregina (interpretazio-etena darabilen azterketaren bidez) zera dugu, Egiarekiko konfidantza indartzea –ez begi bistakoa eta urria–, eta sistemak eta honen bitartekariak kuantifikatu, errepikatu, bermatu, baieztatu, hedatu eta zabaldu dituen ebidentziekiko deskonfidatzea. Manipulazio informatiboaren arloan, politika izena merezi duen edozein politikak dakarren Egiaren efektu partzial eta diferituak azalerazi ahal izateko, ezinbestekoa da, kasurik hoberenean, aurreko guztia burutzea.

---

## Oharrak

---

- (1) APERY Roger eta beste batzuk: *Pensar la matemática* Tusquets, Bartzelona.
- (2) ARISTOTELES: *Poétique*, Ed. Las Belles Lettres, Paris, 1969. 41-42 orr.
- (3) TODOROV, Tzvetan: *Poétique de la prose*, Seuil, Paris, 1971. 12. orr. eta hurrengoak.
- (4) Zentzu berean baina landuago, ikus KRISTEVA, Julia: *Semiótica 2*, Fundamentos, Madril, 1981. 11-12 orr. Jose Martín Arancibiak gazteleratua. Frantseseko orijinala: *Semiotike. Recherches pour une sémalyse*, Seuil, 1969.
- (5) AGUILERA, Octavio: *Las ideologías en el periodismo*, Paraninfo, Madril, 1990.
- (6) GENETTE Gérard: "Varisemblable et motivation", in *Communications* 11, Paris, 1968.
- (7) BARTHES, Roland: *Le degré zéro de l'écriture*, Paris, Seuil, 1953. 46-52 orr.